| ZORDUNA DEUDOR | NAN DNI | ESPEDIENTEAK EXPEDIENTES | ADMINIST.-EGINTZA ACTO ADMINISTRATIVO | INTERESADUNAK INTERESADOS |
|---|---|---|---|---|
| M DOLORES SANCHEZ CALLE | 4.187.114 | 2005-124-3 | Ondasun Higiezinen Bahitura/Embargo Bienes Inmuebles | M DOLORES SANCHEZ CALLE |
| TRINIDAD SUBIÑAS ROJO | 13.056.360 | 2003-12-26<br>2003-12-27<br>2003-12-28<br>2006-36-398 | Ondasun Higiezinen Bahitura/Embargo Bienes Inmuebles | TRINIDAD SUBIÑAS ROJO<br>M PILAR SUBIÑAS ROJO |
| JUAN ANTONIO ALDAMA ODIAGA | 14.889.539 | 2005-13-5<br>2005-207-135 | Ondasun Higiezinen Bahitura/Embargo Bienes Inmuebles | JUAN ANTONIO ALDAMA ODIAGA<br>ANA ROSA ALBENIZ SOLORZANO |
| BONIFACIO COVARRUBIAS SANTOS | 50.800.083 | 2004-22-36<br>2004-75-61<br>2004-80-18<br>2004-81-41<br>2004-148-87<br>2004-170-41<br>2005-90-49 | Ondasun Higiezinen Bahitura/Embargo Bienes Inmuebles | BONIFACIO COVARRUBIAS SANTOS |
| CONSTRUCCIONES TABOADA, S.A. | A-48.220.255 | 2003-145-20<br>2003-145-21<br>2003-145-22<br>2003-145-23<br>2003-145-24<br>2003-145-25<br>2003-145-26<br>2005-76-16<br>2005-76-17<br>2005-76-18<br>2005-76-19<br>2005-76-20<br>2005-76-21<br>2005-249-12<br>2005-249-13<br>2005-249-14<br>2005-249-15<br>2005-249-16<br>2005-249-17 | Ondasun Higiezinen Bahitura/Embargo Bienes Inmuebles | CONSTRUCCIONES TABOADA, S.A.<br>ANDRES PRIETO DE ALONSO ARMINO |
| JOSE MARIA CORRES CORRES | 16.238.617 | 2004-60-229<br>2004-195-32<br>2005-25-205<br>2005-81-214<br>2005-182-187 | Ondasun Higiezinen Bahitura/Embargo Bienes Inmuebles | JOSE MARIA CORRES CORRES<br>SATURNINO CORRES CORRES |
| FRANCISCO FERNANDEZ FRANCO | 16.558.727 | 2003-188-185<br>2004-46-129<br>2005-140-2 | Ondasun Higiezinen Bahitura/Embargo Bienes Inmuebles | FRANCISCO FERNANDEZ FRANCO |
| JOSE RAMON GOMEZ RUIZ | 18.595.076 | 2005-90-90<br>2005-110-167<br>2005-151-43<br>2005-201-138<br>2005-204-189<br>2005-279-211<br>2006-9-212<br>2006-24-121<br>2006-103-204 | Ondasun Higiezinen Bahitura/Embargo Bienes Inmuebles | JOSE RAMON GOMEZ RUIZ |
| FERNANDO MANSILLA PARDO | 16.303.761 | 2005-201-193<br>2005-204-256<br>2005-279-266<br>2006-9-278 | Ondasun Higiezinen Bahitura/Embargo Bienes Inmuebles | FERNANDO MANSILLA PARDO |
| ALEJO MARCOS SANCHEZ | 17.431.658 | 2004-92-29 | Ondasun Higiezinen Bahitura/Embargo Bienes Inmuebles | FELICITAS M ALZOLA OTADUY |
| FRANCISCO JAVIER VIDAL GARCIA | 16258167 | 2004-16-75 | Ondasun Higiezinen Bahitura/Embargo Bienes Inmuebles | RICARDO ENRIQUE VIDAL ROMAN |

• • •

# II ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA / ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA II

## Udalak

### AMURRIO

**5.282**

**Iragarkia**

2006ko uztailaren 6an buruturiko Udalbatzaren Osoko Bilkurako saioan, Amurrioko bide publikoan dirua biltzea arautzen duen Ordenantzari hasierako onarpena ematea adostu zuen.

Amurrioko bide publikoan dirua biltzea arautzen duen Ordenantzaren behin-behineko akordioa jendaurrean jartzeko epea igarota, eta epe horretan inolako erreklamaziorik aurkeztu ez dela aintzat hartuta, aipatu akordioa behin-betiko onartzen da, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49 c) atalak jasotakoa betez.

## Ayuntamientos

### AMURRIO

**5.282**

**Anuncio**

El Ayuntamiento-Pleno, en sesión celebrada el día 6 de julio de 2006, acordó aprobar inicialmente la Ordenanza Reguladora del ejercicio de la postulación en vía pública en el término municipal de Amurrio.

Transcurrido el plazo de exposición al público del acuerdo provisional de la Ordenanza Reguladora del ejercicio de la Postulación en Vía Pública en el término municipal de Amurrio, y no habiéndose presentado, dentro del mismo, reclamación alguna, dicho acuerdo queda elevado a definitivo, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 49 c) de la Ley 7/85, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local.

Aipatu 7/85 Legearen 70.2 atalak jasotakoa betez, onarturiko Ordenantzaren testua bere osotasunean publiko egiten da.

**Amurrioko Udalerriko Bide Publikoan dirua biltzea arautzen duen Ordenantza.**

ARRAZOIEN AZALPENA

Udalerrian horren gaineko legezko erregulaziorik ez dugu. Halaber, legezko elkarteen izenean, pertsona batzuek hainbat gorabehera sorrarazi dituzte bide publikoan dirua biltzeagatik. Hori guztia dela eta, Amurrioko Udaletik uste dugu komenigarria izango dela ekintza hori erregulatzea, jarduerari ekiteko jabari publikoko espazioa erabiltzen bada zein erabiltzen ez bada.

Ezin dugu ahaztu dirua biltzeko oinarrizko elementua dela herritarren bihotz ona. Herritarrek dirua ematen dute era altruistan, bidezko kausa egiten ari direla uste baitute. Beraz, administrazioak ardura hartu behar du bildutako dirua ondo erabil dadin.

Ordenantza erregulatzaile honen bidez, baimena emateko baldintzak eta baimena izateko prozedura zehaztu nahi ditugu, bai eta ondoren dirua biltzeko bete beharreko baldintzak ere.

I. ATALA. - HELBURUA ETA JARDUN-EREMUA

1. Artikulua.- HELBURUA.

1.- Ordenantza honen bidez, Amurrioko udalerriko bide publikoan dirua biltzea erregulatu nahi dugu, bai horretarako mahaiak, erakustokiak edo antzekoak jarri behar badira, bai eta jarri gabe ere.

2.- Dirua biltzea oinezkoei dirua eskatzea da pegatina zein antzeko elementuen bidez. Ikur horiek ongintza, kultur, kirol, giza edo laguntzari buruzkoak izaten dira.

2. Artikulua.- ETA JARDUN-EREMUA.

Ordenantza hau aplikatuko dugu Amurrioko udalerriko bide publikoan dirua biltzean. Horretarako, mahai, pulpitu, tripode edo antzeko elementuak erabiliko dira jabari publikoko espazioa okupatzeko. Edo, halaber, ez da beharrezkoa izango espazio hori erabiltzea. Nahiko izango da bide publikoan ibiliz dirua biltzea.

II. ATALA.- BAIMENA LORTZEKO PROZEDURA

3. Artikulua.- ESKABIDEA.

1.- Dirua bildu nahi dutenek eskabidea aurkeztu beharko dute udaletxean gutxienez dirua bildu baino hamabost egun natural lehenago.

Eskabidean hurrengo informazioa agertu beharko da:

a. Zein entitatek, taldek edo elkartek eskatuko duen baimena dirua biltzeko eta zein den ordezkariaren identifikazioa: jakinarazpenak helarazteko helbidea eta harremanetarako telefonoa zehaztu beharko ditu.

b. Zein entitatek, taldek edo elkartek eskatuko duen dirua, eskabidea aurkeztu duena ez bada.

c. Bildutako diruarekin zein helburu lortu nahi den zehaztu beharko da argi eta luze.

d. Dirua biltzeko eguna zehaztu beharko da, bai eta ordutegia ere.

e. Dirua biltzeko eremua ere zehaztu beharko da. Dirua biltzeko jabari publikoko espazioa okupatu behar izanez gero, kokapena eta gutxi gorabeherako eremua zehaztu beharko dira.

f. Halaber, zenbat pertsonak eskatuko duten dirua zehaztu beharko da, eta pertsona horiek identifikatu beharko dira. Horretarako, NANaren edo, atzerritarrak izanez gero, antzeko dokumentuaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dute.

2.- Eskabidearekin batera, artikulu honen 1. atalaren a) eta b) puntuetan zehaztutako elkarteak behar bezala eratuta daudela egiaztatzeko dokumentazioa ere aurkeztu beharko da: estatutuak, Baimendutako Erregistro Administratiboan izena emateko ziurtagiria,..).

Halaber, hurrengo agiriak ere aurkeztu beharko dira: IFKren fotokopia eta probintziako Ogasun Sailaren, udalaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiria egiaztatzeko elkarte horrek ez duela inolako zorrik aipatu administrazioekin.

En cumplimiento de lo previsto en el artículo 70.2 de la Ley 7/85 citada, se hace público el texto íntegro de la Ordenanza aprobada.

**Ordenanza Reguladora del ejercicio de la postulación en vía pública en el término municipal de Amurrio.**

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El Ayuntamiento de Amurrio ha considerado conveniente, a la vista de la carencia de regulación legal y a los diversos incidentes protagonizados por personas que en nombre de diversas asociaciones legales estaban ejerciendo la actividad de Postulación en la Vía pública, a su regulación, tanto en el supuesto que dicha actividad exija la ocupación del dominio público como en el supuesto que no exista esta ocupación.

No hay que olvidar que un elemento fundamental en el ejercicio de la postulación es el buen corazón de los ciudadanos que aportan de manera altruista un dinero para una causa que ellos consideran justa y que la administración debe velar para que ese dinero recaudado sea utilización para los fines que se han solicitado

Esta Ordenanza Reguladora pretende señalar tanto los requisitos para la concesión de la autorización, como el procedimiento para la misma y posterior determinación de las condiciones de su ejercicio.

CAPITULO I. – OBJETO Y ÁMBITO DE APLICACIÓN

Artículo 1.- OBJETO.

1.- Es objeto de la presente Ordenanza la regulación del ejercicio de la postulación en toda la vía pública perteneciente al término municipal de Amurrio con o sin colocación de mesas, veladores o similares.

2.- Se considera postulación la petición de dinero a cualquier transeúnte a cambio de pegatinas o elemento simbólicos asimilables, alusivas a motivos de carácter benéfico, cultural, deportivo, social o asistencial.

Artículo 2.- ÁMBITO DE APLICACIÓN.

La presente Ordenanza será de aplicación al ejercicio de la actividad de la postulación en las vías públicas del término municipal de Amurrio, tanto mediante la ocupación de parte del dominio público mediante la colocación de mesas, púlpitos, trípodes o cualquier otro elemento de similares características, o sin dicha ocupación, mediante el tránsito en vía pública.

CAPITULO II.- PROCEDIMIENTO PARA LA OBTENCIÓN DE AUTORIZACIÓN

Artículo 3.- SOLICITUD.

1.- Los interesados/as en el ejercicio de la postulación deberán presentar en este Ayuntamiento solicitud con un antelación mínima de quince días naturales al día previsto para el ejercicio de la postulación.

En dicha solicitud se deberá indicar:

a. Entidad, grupo o asociación solicitante, así como identificación de particular representante, con domicilio a efectos de notificación y teléfono de contacto.

b. Entidad, organización, grupo o asociación a cuyo favor se llevará a cabo el ejercicio de la actividad de postulación, cuando no sea la misma solicitante.

c. Descripción clara y suficiente de los fines que se pretende lograr con la recaudación efectuada.

d. Día previsto para su realización con especificación de horario.

e. Entorno en el que se preve el ejercicio de la postulación. En el supuesto de que la misma suponga ocupación de dominio público, determinar su ubicación y extensión aproximada del mismo.

f. Numero de personas que van a efectuar la postulación e identificación de las mismas, mediante copia compulsada de DNI o documento homólogo cuando se trate de personas extranjeras.

2.- La solicitud se acompañará, en todo caso, de la documentación (Estatutos, certificación de inscripción en Registro Administrativo Autorizado, etc...) necesaria para acreditar que las Entidades referidas en las letras a) y b) del apartado 1 de este artículo, están legalmente constituidas.

Así mismo se deberá acompañar de fotocopia del CIF y certificación de Hacienda de la provincia de su domicilio, del Ayuntamiento de residencia y de la Seguridad Social, de no tener deuda alguna vencida y no pagada para con tales Administraciones.

Dokumentu horiek jatorrizkoak edo lehenengo notario-kopia edo aurrekoen kopia konpultsatua izango dira.

3.- Aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta kontrastatu egingo dute udal zerbitzuetako arduradunek, elkartearen egiazkotasuna egiaztatzeko dokumentazio hori nahikoa den ala ez zehazteko.

Aurkeztutako dokumentazioa eskasa edo ezegokia izanez gero, gehienez hamar astegun emango zaizkio elkarteari dokumentazioa osatzeko edo zuzentzeko. Emandako epea amaituko da gutxienez baimena ematea edo ez ematea erabakitzeko denbora nahikoa dagoela.

Konponketak egiteko epea amaitutakoan, aurkeztutako dokumentazioa onetsi ezean edo eskasa izanez gero, dokumentazioa gorde egingo da, arrazoiz, eta eskabidea aurkeztu duenari jakinarazi eta gero, horren gainean ez da tramite gehiagorik egingo.

4. Artikulua.- IZAPIDEAK ETA EBAZPENA.

1. Udal zerbitzuetako arduradunek dokumentazioa egiaztatu eta gero, dirua biltzeko baimena emango dute.

2. Baimena emateko beharrezkoa izango da Alkate Udalburuaren Dekretua izatea. Dekretu horretan dirua biltzeko eguna agertu beharko da, bai eta ordutegia zein baimendutako pertsonen kopurua eta identitatea ere. Halaber, dekretu horren bidez zehaztu beharko da jabari publikoko espazioa okupatuko den ala ez. Okupatuz gero, kokapena eta horren gaineko dimentsioak zehaztu beharko dira.

3. Jabari publikoko espazio okupatuz gero, udal tasak ordaindu beharko dira. Tasen ordainketa ordenantza fiskalaren araberakoa izango da.

4. Dirua bildu bitartean, ezin izango dira ibilgailu eta oinezkoen joan-etorriak oztopatu. Eta une guztietan, Alkate Udalburuaren Dekretuan zehaztutako jarraibideak bete beharko dira, bai eta Udaltzaingoak zehaztutakoak ere.

III. ATALA.- DIRUA BILTZEA.

5. Artikulua.- BAIMENA LORTZEKO BALDINTZAK.

1. Baimena eskatzen duen entitateak, taldeak edo elkarteak egokitu beharko du dirua biltzeko jarduera eskabidean zehaztutako pertsona kopurura; izan ere, kopuru zehatz horretarako emango zaio baimena. Jabari publikoko espazioa okupatuz gero, dekretuan zehaztutako kokapena zein dimentsioak errespetatu beharko dira.

2. Dirua biltzen duen pertsona bakoitzak txartel bat eraman beharko du agerian entitate, talde edo elkartearen izenarekin. Eta, era berean, pertsonaren izena, abizenak, NAN zenbakia eta duela gutxiko argazkia agertu beharko dira aipatu txartelean.

3. Dirua biltzen ari den pertsonaren bat baimena lortzeko eskabidean agertu ezik, dirua biltzen hasi baino lehen, horren berri eman beharko du Udaltzaingoan. Gauzak horrela, eskabidean agertzen ez den pertsona hori edo horiek identifikatu ahal izango dira.

4. Dirua bildu bitartean, dirua biltzen ari den pertsonaren batek gorabeherarik sorraraziz gero, baimena eskatu duen entitateak, taldeak edo elkarteak erantzukizuna izango du pertsona horiek eragin ahal dituzten gorabeherez edo kalteez. Nolanahi ere, une orotan, udaltzainek eman litzaketen jarraibideetara egokitu beharko dira jendepilaketak saihesteko, ibilgailuak edo oinezkoan joan-etorriak ez oztopatzeko, edo gainontzeko gorabeherak ekiditeko, bereziki merkataritza edo ostalaritza establezimenduetako ateetan gertatuz gero.

5. BERMEA EDO FIDANTZA. Baimena lortzeko dekretuan, kasu bakoitzean, eskatzaileak ordaindu beharreko fidantza ezarriko da. Fidantza ordaintzeko posible izango da kontratazio administratiboko modu guztiak erabiltzea. Gutxieneko fidantza 150 eurokoa izango da. Fidantzaren balioa arrazoien araberakoa izango da.

IV. ATALA - ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK.

6. Artikulua.- ZEHAPEN PROZEDURA.

1. Ordenantza honek zehaztutakoa bete ezik, udalak zigortu egingo du araua hautsi duena. Horretarako, aldez aurretik, zehapen-espedientea tramitatu beharko da. Horren ebazpena Alkate Udalburuari dagokio.

2. Ordenantza honetan aurreikusitako arau-hausteei dagozkien zigorrak ezartzeko prozedura eta ebazpenen kontra jar daitezkeen errekurtsoetarako prozedura indarrean dagoen prozedura administratiboaren araudiak zehaztuko du.

Estos documentos deberán ser originales o primeras copias notariales o copias compulsadas de los anteriores.

3.- La documentación aportada será objeto de estudio y contraste por parte de los Servicios Municipales, al objeto de determinar si la misma es suficiente para estimar su veracidad.

En el caso de que la documentación presentada se considere insuficiente o inadecuada, deberá ser subsanada o completada en un plazo no superior a diez días hábiles otorgados al efecto y que deberá finalizar como mínimo, con antelación suficiente para adoptar la resolución de otorgamiento o denegación de la autorización.

Se procederá a su archivo, de forma motivada, sin más tramite que la correspondiente notificación al solicitante en el supuesto de que, transcurrido el plazo otorgado para su subsanación, la misma no sea aprobada o sea considerada insuficiente.

Artículo 4.- TRAMITACIÓN Y RESOLUCIÓN.

1. Verificada la documentación por los Servicios Municipales, se procederá al otorgamiento de la licencia de postulación.

2. El otorgamiento de la autorización se llevará a cabo mediante Decreto de Alcaldía-Presidencia en el que se especificará el día de realización de la actividad, horario de la misma así como número e identidad de personas autorizadas. Así mismo, el Decreto especificará si la actividad de la postulación implicará el uso de dominio público mediante ocupación del mismo, localización de dicha ocupación y dimensiones de la misma.

3. El pago de las tasas en el supuesto de que el ejercicio de la postulación se lleve a cabo mediante ocupación de dominio público, se ajustará a la correspondiente Ordenanza Fiscal.

4. El ejercicio de la postulación deberá llevarse a cabo de forma que no impida el libre tránsito de vehículos y peatones y cumpliendo, en todo momento, las indicaciones que puedan señalarse en el Decreto de Alcaldía-Presidencia de autorización y las que, en su cumplimiento, puedan ordenarse desde la Policía Local.

CAPITULO III.- EJERCICIO DE LA ACTIVIDAD DE LA POSTULACIÓN.

Artículo 5.- CONDICIONES DE LA AUTORIZACIÓN.

1. La Entidad, Grupo o Asociación solicitante deberá ajustar la actividad de postulación al número de personas especificado en la solicitud y para los que se haya otorgado autorización. En el supuesto de ocupación de dominio público, el mismo deberá ajustarse a lo indicado en el Decreto de autorización tanto en su ubicación como en su dimensión.

2. Cada una de las personas que realicen la actividad de postulación, deberá portar a la vista una tarjeta identificativa de la Entidad, Grupo o Asociación a la que pertenece en la que deberá figurar nombre, apellidos, número de DNI y fotografía reciente.

3. En el supuesto de que alguna de las personas que van a realizar la actividad no sea la que figura en la Solicitud de autorización, se deberá informar a la Policía Local de tal circunstancia, antes de comenzar el ejercicio de la postulación, procediendo a la identificación de la persona o personas que no figuren en la Solicitud.

4. La entidad, Grupo o Asociación solicitante será la única responsable de los incidentes o daños que pudieran ocasionarse por cada una de las personas postulantes en el ejercicio de la actividad. En todo caso, deberá ajustarse, en cada momento, a las indicaciones que puedan darse desde la Policía Local en evitación de aglomeraciones, dificultad de tránsito de peatones o de circulación o cualquier otro tipo de incidente, especialmente si los mismos se producen a la puerta de establecimientos comerciales o de hostelería.

5. AVAL O FIANZA. El Decreto de autorización establecerá la fianza que en cada caso, deberá prestar el solicitante, pudiéndolo hacer en cualquiera de las formas admitidas para la contratación administrativa. La fianza mínima será de 150 euros. La cuantía de fianza se fijará motivadamente.

CAPITULO IV.- INFRACCIONES Y SANCIONES.

Artículo 6.- PROCEDIMIENTO SANCIONADOR.

1. Las infracciones a lo dispuesto en esta Ordenanza serán sancionadas por el Ayuntamiento, previa tramitación del correspondiente expediente sancionador, cuya resolución corresponderá a la Alcaldía – Presidencia.

2. El procedimiento para la imposición de las sanciones a las infracciones previstas en la presente Ordenanza y para los recursos que contra las resoluciones puedan interponerse, será el establecido por la normativa de procedimiento administrativo sancionador en vigor.

3. Arau-hausteen arduradunak ondoko hauek izango dira: dirua biltzeko baimen administratiboa eskatu duten pertsona fisiko edo juridikoak, edo, horiekin bat eginik, arau-haustea egin duten pertsona fisikoak edo juridikoak.

7. Artikulua.- ARAU-HAUSTEAK.

1. Arau-hausteak larriak, oso larriak eta arinak izan daitezke.

2. Arau-hauste oso larriak izango dira:

a. Udaleko baimen administratiborik gabe dirua eskatzea.

b. Dirua biltzea herritarrek dirua askeki emateko eskubidearen kontra eginez gero.

c. Pertsona edo ibilgailu ugari egonez gero, kokapenari eta dirua biltzeko jarduerari erreferentzia eginez, autoritateko agenteen aginduak ez betetzea.

d. Dirua biltzea pertsona batek edo batzuek espazio publikoa erabil dezaten larriki oztopatuz.

e. Dirua biltzea zerbitzu publiko batek ohiko funtzionamendua izan dezala eragotziz edo larriki oztopatuz.

f. Eskabidean emandako datuak faltsuak izatea.

g. Arau-hauste larria oso larria izan ahal da erruztatuak aurreko bost urteotan bi falta larri egin baditu eta zigorrak irmoak izango dira.

3. Arau-hauste larriak izango dira:

a. Dirua biltzea baimen administratiboan zehaztutako oinarrizko baldintzak bete ezik

b. Dirua biltzea pertsona batek edo batzuek espazio publikoa erabil dezaten zailduz edo oztopatuz, betiere pertsona horiek espazioa erabiltzeko eskubidea izanez gero.

c. Dirua biltzea zerbitzu publiko batek ohiko funtzionamendua izan dezan enbarazu eginez edo oztopatuz.

d. Arau-hauste arina larria izan ahal da erruztatuak aurreko bost urteotan bi falta larri egin baditu eta zigorrak irmoak izango dira.

4. Arau-hauste arinak izango dira ordenantza honetako gainontzeko hauste guztiak.

8. Artikulua.- ZIGORRAK.

1. Ordenantza honetan zehaztutako arau-hauste bakoitzak zigorra izango du:

a. Arau-hauste administratibo oso larria eginez gero: 3.000 euros-ra bitartean.

b. Arau-hauste administratibo larria eginez gero: 1.500 euros-ra bitartean.

c. Arau-hauste administratibo arina eginez gero: 750 euros-ra bitartean.

2. a. Gainera, arau-hauste oso larria eginez gero, erruztatuak ezin izango du dirurik eskatu udalerrian 2 urtez gutxienez eta 10 urtez gehienez.

b. Arau-hauste larria eginez gero, erruztatuak ezin izango du dirurik eskatu udalerrian gutxienez 6 hilabetez eta gehienez 2 urtez.

c. Arau-hauste bat eginez gero eta horri dagokion zigor osoa bete gabe izanez gero, debeku-zigorra metagarria izango da.

3. Ezarri beharreko zigorra hurrengo irizpideen arabera zehaztuko da:

a. Beste pertsona batzuen lasaitasunean edo eskubideen egikaritze baketsuan edo jardueretan eragindako nahasmenduaren intentsitatearen arabera.

b. Beste pertsona batzuek zerbitzu edo espazio publikoa erabiltzeko eskubidea dutenean, erabilera horretan eragindako nahasmenduaren intentsitatearen arabera.

c. Zerbitzu publikoaren funtzionamendu normalean eragindako nahasmenduaren intentsitatearen arabera.

d. Zerbitzu edo espazio publiko bateko ekipamendu, azpiegitura, instalazio edo elementuei eragindako kalteen intentsitatearen arabera.

AZKEN XEDAPENA: honako ordenantza hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera egongo da indarrean, zehaztutako legezko baldintzei jarraiki.

Amurrion 2006ko abuztuaren 19an.– Alkatea, PABLO R. ISASI.

3. Serán responsables de las infracciones las personas físicas o jurídicas solicitantes de la autorización administrativa para el ejercicio de la actividad, o, solidariamente, las personas físicas o jurídicas autoras materiales de la infracción tipificada.

Artículo 7.- DE LAS INFRACCIONES.

1. Las infracciones se clasifican en muy graves, graves y leves.

2. Se consideran infracciones Muy Graves:

a. Ejercer la actividad de postulación sin autorización administrativa municipal al efecto.

b. Realizar la postulación de manera atentatoria del derecho a la libre aportación de los ciudadanos/as.

c. Incumplir las ordenes dadas por los Agentes de Autoridad relativas a la ubicación o ejercicio de la actividad de la postulación ante dificultades graves de tránsito de personas o vehículos.

d. Ejercer la actividad de postulación impidiendo gravemente el uso de un espacio público por otra u otras personas.

e. Ejercer la actividad de la postulación causando impedimento o grave obstrucción al normal funcionamiento de un servicio público.

f. Haber cometido falsedad de los datos aportados en la solicitud.

g. La falta grave se transformará en muy grave, si el inculpado hubiera sido sancionado previamente en los últimos 5 años, por la comisión de 2 faltas graves siendo firmes tales sanciones.

3. Se considerarán infracciones graves:

a. Ejercer la postulación incumpliendo las condiciones esenciales establecidas en la correspondiente autorización administrativa.

b. Ejercicio de la actividad de la postulación dificultando u obstaculizando el uso de un espacio público por otra persona u otras personas con derecho a su utilización.

c. Ejercicio de la actividad de la postulación causando molestias u obstrucción al normal funcionamiento de un servio público.

d. La falta leve se transformará en grave, si el inculpado hubiera sido sancionado previamente en los últimos 5 años, por la comisión de 2 faltas leves siendo firmes tales sanciones.

4. Se considerarán infracciones Leves el resto de incumplimientos de esta Ordenanza.

Artículo 8.- DE LAS SANCIONES.

1. Las infracciones tipificadas en la presente Ordenanza darán lugar a la imposición de las siguientes infracciones:

a. Por la comisión de infracción administrativa muy grave: hasta 3.000 euros.

b. Por la comisión de infracción administrativa grave: hasta 1.500 euros.

c. Por la comisión de infracción administrativa leve: hasta 750 euros.

2. a Además la sanción por Infracción muy grave llevará aparejada para el/la sancionado/a la prohibición de postular en el Municipio durante un mínimo de 2 años y un máximo de 10 años.

b Cuando se trate de Infracción grave, la prohibición de postular será de un mínimo de 6 meses a 2 años.

c La sanción de prohibición será siempre acumulable a cualquier otra análoga ya existente y no enteramente cumplida.

3. La graduación de la sanción a imponer vendrá determinada por la aplicación de los siguientes criterios:

a. Intensidad de la perturbación ocasionada en la tranquilidad o en el pacífico ejercicio de los derechos de otras personas o actividades.

b. Intensidad de la perturbación ocasionada en el uso de un servicio o de un espacio público por parte de las personas con derecho a utilizarlos.

c. Intensidad de la perturbación ocasionada en el normal funcionamiento de un servicio público.

d. Daños eventualmente ocasionados a los equipamientos, infraestructuras, instalaciones o elementos de un servicio o de une espacio público.

DISPOSICIÓN FINAL: la presente Ordenanza entrará en vigor y obligará, tras la publicación de su texto íntegro en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, en los términos legalmente establecidos.

En Amurrio, a 19 de agosto de 2006.– El Alcalde, PABLO R. ISASI.